



Ikastolen iragana eta oraina

Erraietatik begira

Duela gutxi jubilatuta dira. Eta jubilazioa onartu dute. Ikastolak irakatsi omen die horrelako gauzak ametitzen. Hainbat hamarkadatan irakasle jardun eta gero begirada sakona dute, eta haien ikasle izan garenon bihotz zola arakatzeko dute kolpe batean.

Esperientzia horretaz baliaturik, ikastolaren iraganaz eta orainaz hitz egin dute: zer goldatu zen, zer aldatu den, zer jasoko den.

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

GAUR EGUNGO ikastolen erraiak frankismoaren putzu lohituan daude sarturik. Buztinezko mundu hartatik sortu ziren eta XXI. mendera igaro, zuntz optikoaren txirristan. Asko aldatu dira gauzak 40 urte horietan, ibilbide luzea egin dute ikastolek: eztabaida gogorak jasan, barrena biziberritzen duten ekitaldiak antolatuta, erabaki zailak hartu... Milaka ikasle, guraso eta irakasle izan dira ikastolen taupada bakoitzaren odol emaille. Baina lokatza ur gazi bihurtu zuten irakasleak jubilatzen hasi dira orain, belaunaldi berriari paso ematen.

1960ko hamarkada hasieran sortu ziren lehenengo ikastola modernoak, heterogeneoak oso, egoera ezberdinetan haziak. Gero, diktaduraren kontrako giroa orokortu zenean, ikastolen mugimenduak beste dimentsio bat hartu zuen. Euskarara berreskuratzeko motibazioak batu zituen guztiak, gizarte berri bat eraikitzeko gogoak. 1970. urtean 100 ikastola inguru zeuden jadanik eta hamar urte geroago 240 bat. Baliabide eskasiari, diktadurarik gabeko hezkuntza librearen ilusioa gainjarri zitzaion, hori zuten pizgarri orduko irakasleek.

Hernaniko *Erriogoardako* irakaslearekin

Bere aitona Hernanira (Gipuzkoa) etorri zen lanpostu eta soldata hobeago bat eskaini ziotenean, erri-goarda zen. Ixiar Egigurenen etxera sartzean goizeko eguzki izpiek besarkatu gaituzte. Telefonoa hartu du ikastolara deitzeko, eskatu genizkion argazki zahar horiek lortu nahi ditu:

“Bai bai, joango naiz bisitan –esan dio lankide ohiari– lasaiago zaudetenean”. Ikasturte hasiera da eta Langile ikastolan lanpetuta dabilta, seguru *Erriogoardako* irakaslea gogoan izango dutela. Egiguren aurten jubilatuta da guztiz, 40 urtez irakaskuntzan ibili eta gero. Lanbide horretan bokazioz sartu zen, nahiz eta hasieran bere aitari irakasle izateko ideia hori asko ez gustatu; frankismoko maistrak imajinatzen zituen hark, eta ez ikastolako andereñoak.

Egurrezko mahaiaren bueltan lehenengo atera den izena Elvira Zipitria izan da. “Zuk ezagutu zenuen, ezta?” galdetu diogu. “Bai, Donostiako etxera gonbidatu ninduten magisteritza egiten ari nintzela, lurtean eserita egoten ginen”. Elvira Zipitriak sortu zuen ikastolen aitzindari izan zen lehen etxe-eskola.

Agian, lege zaharrea oinarrituta zegoen eskola hori, baina Egigurenen esanetan Elvira oso aurrerakoa zen, kanpoan ibilia.

Hain zuzen, bera ere kanpoan ibili da, Liman (Peru), eta nabari da betirako geratu zaiola Andeetako herriaren arrastoa. Allende-ren urte kutsakorrek, hezkuntza erreforma, eskola berri baten sorrera... Jakina, Hernanira itzuli

zenean guzti hura ikastolan aplikatzeko aukera izan zuen: “Pentsa zer izan zen, momentu hartan atrebitzea eskola publiko frankista batetik beste eskola diferente bat egitea, euskaraz erabat”, dio irakasleak. Freinet pedagogo ospetsuaren liburua hartu eta ulertzen zutena egin behar izaten zuten, eta horretaz gain lokalak egokitu,

“Seme-alabak nahi ditugu berdinak,
ezberdintasunak bertigoa ematen
digulako, eta horrela ez dugu ezer
ekartzen, antzuak geratzen gara”

IXIAR EGIGUREN



Ixiar Egiguren

1945ean jaio zen Hernanin. Magisteritza ikasi ondoren Madrilera joan zen pedagogia ikasketak egitera. Liman bizi izan zen bost urtez, irakasle lanetan. 1975ean itzuli zen Euskal Herrira eta Hernaniko Langile ikastolan hasi zen lanean. 40 urte eman ditu irakaskuntzan. “Asmo bat genuen: eskola euskaldun eta herrikoia egitea, eta termino horien azpian jar ezazu nahi duzun guztia”.

edo dirua bildu. “Lehenago batek esan zidan: *‘Ya nos hacías trabajar eh! Con una bormigenera!’*. Dena zen posible”. Bere hitzetatik asmatu dugu bitarteko faltarentzako erremediorik onena zein zuten: imajinazioa, “eta ilusio izugarria!”, gaineratu du Egigurenek.

Sistema berria, ezezaguna eta legalizatu gabea zen hura, eta normala zen gurasoek errezeloak izatea haurrak ikastolara eramateko garaian. Baina irakaslearen ustez gurasoak berak ziren beste guraso taldeak konbentzitzen lehenak eta horrek bidea asko erraztu zuen. Dena den, aitortzen du hasieran hutsune handiak izan zituztela programa eta edukietan: “Hasierako ikasleek ordaindu zuten hori, baina hala ere elegante ateratu dira bizitzaren aurrean”, dio.

Hurrengo “errenkarnaziorako” utzitakoak

Lehenengo ikasleak gaurko pertsona heldu ikusten dituen poza sentitzen du Ixiar Egigurenek, poza eta “lasaitasuna”. “Eta alderantziz? Ikasle batekin asmatu ez duzula sentitzen baduzu?”, bota diogu. Isilik gelditu da denbora luzez, begirada lausotu zaio: “Ikasi dut hori ere onartzen, batzuetan asmatzen da eta bestetan ez. Baina ni genetikoki optimista izan naiz beti”, azaldu du gero irribarre batekin.

Urteek ez dute barkatzen, ikasleak hazi egiten dira eta guraso bihurtu. Berdina al da lehenengo eta gaurko gurasoen jarrera? Berdinak kezak? Gizartea aldatu den bezala, aldatu dira portaerak: “Hasierako ikasle haiek, klase ondoren ikastolan geratzen ziren, ez zuten presarik amaitzeko. Orain, batek musika, besteak dantza, ortodontzia jartzea... Hori izugarri kanbiatu da”, dio berak. Baina ez da erraza ikastolen hasierako izaera berezi hura mantentzea, “koordinada zehatz batzuk eman ziren hori posible egiteko, garai pribilegiatua bizi izan genuen”.

Ixiar Egigurenek argi du etorkizuneko ikastolak irakasleen prestakuntza “humanoa” landu behar duela: ikasleak zer behar duen ezagutu, jakin zergatik diren ezberdinak, eta ezberdintasun horiek onartu. “Denok ateratzen gara seriean. Gurasoak sufritzen hasten dira hortzekin, horri atera zaiola eta nireari ez... Nahi ditugu berdinak, ezberdintasunak bertigoa sortzen digulako eta horrela ez dugu ekarpenik egiten, antzua geratzen gara”. Pertsona bakoitzak bere gaitasunak garatuko dituen eskola berri bat nahi luke hernaniarrak, baina hori beste irakasle belaunaldientzat utzi du: “Nire hurrengo errenkarnazioan egingo dut”.

Gustura ari gara irakaslearekin hizketan, baina goiza aurrera doa eta jubilatua dagoen arren bere zereginak baditu. “Informatika ikasi nahi nuke, oraindik asko geratzen zait”, dio. *Erriogardatik* aterata garenegonean eguzkia goian dago. Zarautzera (Gipuzkoa) abiatzeko ordua da, han dugu hurrengo zita.

Josu Txapartegi, irakasle “antzerkizalea”

Ikastolen historian eztabaida mingarrik bada, hori izan da publikazioarena. Euskal eskola publikoaren auzia diktaduraren amaieratik hasi zen mamitzen eta 80ko hamarkadan hartu zuen indarra –Eusko Jaurlaritzak eskumen autonomikoak bereganatu zituenegonean–. Ikastolen sare berezia hezkuntza publikora egokitzeak ideia kontrajarriak sortu zituen abertzaleen artean eta 1993an ikastolek publiko edo pribatu aukeratu behar izan zutenegonean barne-zatiketa nabarmena ikusi ahal izan zen. Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolak bigarren aukeraren alde egin zuten.

“Pribatua ez! Ikastola ez da pribatua izan, jaio zen herritarren bihotzetik, estatuaren inposaketari herritar batzuek emandako erantzuna izan zen eta horri pribatu deitzeak mina ematen dit”. Garbi hitz egin digu Josu Txapartegik, ondo uler dezagun, nabari da irakasle izan dela. Bere ustez ezkerreko marxisten akatsa izan da pentsatzea gobernu publikotik datorrena defendagarria dela eta herritarrengandik datorrena pribatua, baztertu beharrekoa: “Chiapasen Mexikoko hezkuntza

“Oteizak esan zuen euskara salbatuko dela euskara sortu zuen euskal gizakia berreskuratzean. Horixe da curriculuma”

JOSU TXAPARTEGI

eredua aztertu zutenean, esan zuten: ‘Fuera! Guk sortuko dugu gure eskola’, indigenek sortutako eskola horri deituko diot nik pribatu?’”.

Josu Txapartegi, *Txapas*, euskararen alde lan egiteagatik hasi zen ikastolan, duela 30 urte. Azkeneko 10 urteetan musika irakasle izan da egun erdiz –beste egun erdia maisu–; Tolosako (Gipuzkoa) Sakramentinoen komentuan ikasi zuen pianoa zertxobait jotzen, Salvador Garmendiaren eskutik. Lehenengo aldiz mutiko bat pianoa jotzen ikusi zuenean ez zuen ulertzen: “Nola jo liteke gauza bat eskuin eskuarekin eta ezkerrarekin bestea?”. Musika Plazako Arrano elkartera igo gara lasaiago egoteko. Bizitza konprometitua izan du *Txapas*ek eta aurreneko sorpresa elkarteko paretan zintzilik aurkitu dugu: Amnistaren aldeko kantuarren partitura originala (*Kalera kalera...*). Berak idatzi zituen letrak 1976an eta Imanol Urbietak konposatu zuen musika. Baina orduan egilearen izena sekretu bat zen, “ezin genuen esan kantua zeinena zen, bel-durragatik”, dio ahotsa jaitsiz, sekretua hautsi nahi ez balu bezala.

Kafe usain eta aulki hutsen artean hasi gara berriketan. Orduko gabeziez, ikastolan sartu zeneko giroaz, metodologiak eta gurasoen jokabideaz... Esandako guztien artean arrazoi bat atera da garaile: “Umeari ematen diozun ezagutzen hamarretik zortzi, bizitzaren



Goian: Ixiar Eiguren eta beste irakasle batzuk Limara egindako bidaiatik bueltan jasotako ongietorria, beren ikasleen partetik. Eskuinean: mendi irteera lehenengo ikasleekin.

25 Gabriel Aresti

urte!
ospatzen! euskaltegia*

San Bizente 2 - 4. solairua - 48001 - Bilbo - Tel: 94 423 75 91 **Elkarlan** euskaltegia

* Kafe Antzokian

- Irailak 26, asteazkena / Doako Sarrera
26 GABRIEL ARESTIRI GORAZARRE - 11:00 / 20:00
 Xabier Monasterioren hitzaldia
- Irailak 28, ostirala / Sarrera 12€
 Zenbat Gararen Lagunak 6€
28 JUAN CARLOS PEREZ - 22:00
 kontzertua
- Irailak 30, igandea / Sarrera 5€ / Laguntxoak doan
30 TXAN MAGOA - 17:30

- Urriak 4, osteguna / Aurre. 6€ / Txart. 8€
 Zenbat Gararen Laguna 4€
4 SIXTY SEXERS + WILLIS DRUMMOND - 22:00
- Urriak 5, ostirala / Sarrera gonbidapen bitartez
5 LEHENGO ETA ORAINGO IKASLEEN JAIA - 19:30
 ongi etorria, luntxa, erromeria...
- Urriaren zehar
ARGAZKI ETA BIDEO ERAKUSKETAK

matrikula zabalik!

Ordutegi eta ikastaro berriak - Eskaintza bereziak - Gazteak
 Neguko barnetegiak - 4.maila - Tailerrak - Autoikaskuntza

WWW.GABRIELARESTI.COM



Ikastolen iragana eta oraina

aurrean nola bizi ikasteko da”. Hala ere, Txapartegiren ustez ikastolek ezagutza zientifikoa, edukietan, gabezia handia dute gaur egun: “13 urteko haur batek ikusten du telebistan ondo egindako programa bat eta ordu laurdenean ikasten du irakasle batek hamar ordutan azalduko diona baino gehiago”. Ikastolen zereginak beste dimentsio bat hartu du zarauztarraren iritziz, soziologikoa, agian; jendarte txiki baten antzekoa izango omen da etorkizunean ikastola, haurrek beren bizimodua antolatzeko gune bat.

Curriculum: enegarren erronka

1996an ikastolek euskal curriculum sortzeko erabakia hartu zutenetik ur asko pasa da zubi azpitik. Pixkanaka, gero eta erakunde gehiago sartu da tartean, hasieratik jakina baitzen ekimenak herri osoarena behar zuela izan, ez soilik ikastolena. Pasa da beraz urte mordoska lehen urratsa eman zenetik. Hala ere, hunkitu egiten du ikusteak *Txapas* bezalako irakasle zaildu bati nola irekitzen zaizkion begiak curriculumaz hitz egitean. Gauza garrantzitsua izan behar du bederen.

“Nik orain biloba bat daukat, Garazi; eskolara sartuko da laster eta 17 urterekin atera, ibilbide horretan mundua nondik begiratuko duen funtsezkoa da”, dio aitonak. Frankismoan, euskara errekeratzea zen helburua, baina hori ez dela nahikoa konturatu da Txapartegi, Oteizak ireki zizkion begiak: “Berak zioen euskara salbatuko dela euskara sortu zuen euskal gizaki hori berreskuratzean. Horixe da curriculum”. Gaitz handi bat hedatu omen da ikastolaren historian ordea: politika egitearen beldurra. “Politika ez zela egin behar esaten zen eta zer pasa zen? Apolitiko bihurtu ginela, eta umeari herri honen izaera kontatzea popatik hartzera joan zela!”. Inor ez omen zen politikaz hitz egitera atrebizten eta hori “desastre” bat izan zen Txapartegiren ustez, “drama” bat. Agidanean, antzera jarraitzen dute orain irakasleek eta *Txapas* seguru dago curriculum egiterakoan zalantza berdinekin aurkituko direla, berdin mapak egiteko edo konstituzioak interpretatzeko.

Ondoan: Josu Txapartegiren “azkeneko estirada”. Futboleko atezain jartzean ikasle guztiak inguratzen ziren ikustera: “Haurrek ikusmina sortzen dute eta ikusmin horri nolabait erantzun behar zaio, edozein zorakeria eginda ere”. Eskuinean: ikasle talde batekin kantuan.



Josu Txapartegi

1946an jaio zen Zarautzen. Tolosako Sakramentinoen komentuan ikasi zuen 28 urte egin arte. Ateoa da. Zarauzko Lasallen bi urtez irakatsi eta gero hasi zen Salbatore Mitxelenan irakasle. 30 urte egin ditu irakaskuntzan. “Nik zortea izan dut, ezagutu ditudalako Oteiza eta *Mendi* [Mendizabal pintore zarauztarra]. Umea artistarekin jarri behar da kontaktuan, artearen baloreekin”.

Ondoko tabernara gonbidatu gaitu zerbait hartzera. Jendeak agurto egiten du, denek eza gutzen dute: “Iepa *Txapas*, oso ondo atera zen aurrekoan emanaldia...”. Koru batean dabil eta ez dauka aspertzeko aitzakiarik. Ikastolan lan txo batzuk egiten ditu oraindik, baina berak dioenez molestutzen ari dela sentitzean utzi egingo du. Kaleko giroan sartuta, zirikatzea eta antzerkia egitea gustatu izan zaiola igarri diogu zarauztarrari: “Askoi! Umeak probokatu egiten ditut, zaharrek probokazioaren aurrean disimulatu egiten dugu, baditugu gure defentsak, baina umeak *prasi!* botatzen du. Edozein zorakeriarekin erantzuteko abilezia baduzu, umeak dena onartzen baitu, sortzen den hizkuntza libre hori oso polita da”.

Eguerdia da eta Zarauzko Musika Plazak inurritegi bat dirudi jadanik. Bertan utzi dugu *Txapas*, David Bodanisen $E=Mc^2$ liburua



Kilometroak'07 Bergaran

Datorren urriaren 7an Kilometroak jaialdia egingo da Bergaran, Aranzadi ikastolaren aldetik. Ez da leheneko aldia ikastolen festa Bergarara hurbilduko dena, izan ere, 1991n ere bertan antolatu zuten Kilometroak. Aranzadi ikastola 1971n sortu

zen kooperatiba gisa eta gaur egun 2 eta 18 urte arteko 704 ikasle dabilta bertan. Aurtengo jaialdian ateratako diruarekin Errege Mintegian (eraikin historikoa) duen egoitza hobetu nahi du ikastolak, arduradunen esanetan.

Argi daukagu da ospakizunaren leloa eta ikastolaren alde jendea bildu, elkartzun bideak sortu eta "giro sano batean" naturaz, osasunaz eta euskaraz gozatzea dute helburu antolatzaileek.

6.510 metro eta 21 musika talde

Horretarako, ekitaldiz beteriko eguna izango dute Bergarara hurbiltzen direnek: umeentzako jolasak, erraldoi eta buruhandiak, dantza taldeak, bertso saioak... Bestalde, 21 musika kontzertu izango dira sei gunetan banatutako ibilbidean zehar (Trapatoni Circus Band, Esne Beltza, Anari, Kauta, Tapia eta Leturia & Jokin, eta Pantxoa eta Peio, besteak beste).

Guztira 6,5 kilometroko ibilbidea prestatu du Aranzadi ikastolak, txango laua oso eta gehienez asfaltatua. Bide guztian, natur txoko eta monumentu berezien alboan joango da kilometroazalea: parkeak, dorretxeak, antzinako lantegiak... Gainera, aparkatzeko arazorik izan ez dadin, 240 autobus eta 9.200 autorentzako lekua egin dute udalerrian barrena.



Jaso astero **ARGIA** etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Hertia:
 Herrialdea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: Bankuz
 Taloez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularra: N.A./I.F.K.:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitateak: Sukurtsala: K.D.: Kontu zenbakia:
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria -Gipuzkoa-

Aukeratu ongi etorri oparia

"Ardibidez" mahai-jolasa

"888 txiste" liburua

"Mokogorri" puzzleak

%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2007ko prezioak

130 € Hego Euskal Herrian
160 € Ipar Euskal Herrian

ARGIA

Ikastolen iragana eta oraina

eskuan duela, jendarte “txiki” haren erdian. Guk Legazpira (Gipuzkoa) egin behar dugu, Nekane Arin irakasleak bazkalostean espero baitu gure bisita.

Legazpiko ikastolako lehenengo irakaslearekin berriketan

Nekane Arinek 21 urte zituen magisteritza amaitu zuenean eta ez zekien ikastola bat zer zen ere. Gurasoek 3 eta 4 urteko 41 haurren kargu utzi zuten irakasle hasiberria. “Lehenengo egunean haurrak esertzeko ohol batzuk besterik ez nituen, txotzak, orri batzuk eta arbela bat, beste materialik ez”, dio legazpiarrak. 40 urte geroago jubilatze ordua iritsi zitzaion –joan den urtean– eta hasierako ikasle horiek 44 urte dituzte gaur egun. Oraindik elkartzen dira afaritarako noizean behin, eta oraindik “andereño” deitzen diote askok.

Nekane Arin segituan ohartu zen ikastolako pedagogia ezberdina zela eta mugimendu berri baten aurrean zegoela: “Ikastola beti saiatu da bide berriak urratzen, beti egon da metodologia hobetzeko gooa” dio. Urte batzuen ondoren

Eskuinean: Nekane Arin ikastolarako materiala prestatzen. Behean: Legazpiko irakasle lehenengo ikasle taldearekin.



Nekane Arin

Legazpiko *Zubitxo* izeneko etxean jaio zen 1946an. Abarzako (Nafarroa) Eskolapiatan egin zuen magisteritza eta 1967an hasi zen Legazpiko Kimu Berri ikastolan (gaur egun Haztegi ikastola). 40 urtez aritu da irakaskuntzan. “Beti esan izan dut haur bakoitzaren erritmoa errespetatu behar dela. Baina urteak behar izan ditut onartzeko lankideek pedagogia eta metodologia ezberdina erabili dezaketela. Hori izan da zailena niretzako.”



heziketa berezia behar duten ikasleentzako gelan hasi zen lanean, agian, urteen poderioz atzemandako injustizia bati erantzun nahian: “Hezkuntza sistema honekin ez ditugu ikasleen gaitasuna eta erritmoa errespetatzen. Inor ez da nor haur bati esateko hamar urterekin ‘hau jakin behar duzu’, horrek porrota sentazioa, autoestima falta eta frustrazioa sortzen ditu, eta indarkeria ere bai. Baina ez gara konturatzen lehenengo erasotzaileak gu garela, behartzen ditugulako jarraitu ezin duten bide batetik ibiltzera”. Gaur egun eskolen

“Inor ez da nor esateko haur bati hamar urterekin ‘hau jakin behar duzu’, horrek frustrazioa eta indarkeria sortzen du, baina lehenengo erasotzaileak gu gara”

NEKANE ARIN

artean dagoen konpetentziak kalte handia egiten duela uste du irakasle beteranoak: “Estatistikak egiten dira-eta!” dio asaldatuta.

Legazpiko etxeko egongelan galtzamotozdun irakasleak ikusi ditugu argazkietan, alkimiak harapatuta, hamarkada askotako ibilbidearen irudi dira. “Imajinatzen dituzu ikastolak beste 40 urte barru, Nekane?”. Erantzuna barrutik etorri zaio: “Ikastolak gizartearen isla dira. 2.000 urtetan ezer gutxi aurrerratu dugu, teknologian behar bada bai, baina baloretan... Zer dira ba 40 urte?”. Andereñoak atea itxi duenean, hausnarketa hori gurekin etorri da. Ikastolari agur esan dion irakasle belaunaldi baten zertzeladak pintatu ditugu hemen. Belaunaldi berriek margotuko duten koadroa nolakoa izango ote da? ■